

# Tipo idealak euskararen kale erabileran

**Patxi Juaristi Larrinaga**

*UPV/EHU - Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea*

patxi.juaristi@ehu.es

Sarrera-data: 2012-11-28 | Onartze-data: 2012-12-10

**Laburpena.** Max Weber (1864-1920) ekonomialari eta soziologo alemaniarraren lanean oinarrituta, artikuluko honetan, kalean euskara erabiltzen dutenen eta erabiltzen ez dutenen tipo idealak sortzen dira, erabilera bultzatzen edo oztopatzen duten faktoreak hobeto ezagutzeko helburuarekin. Hiztunen sexuaren, adinaren, bizitokiaren eta inguruko elebidun-dentsitatearen arabera desberdintasunak kontuan hartuz, pertsona batek kalean euskaraz egiteko edo ez egiteko eragiten duten faktoreak azaleratzen dira. • **Hitzgakoak:** *tipo idealak, kale-erabilera, sexua, adina, bizitokia, elebidun-dentsitatea.*

**Abstract.** On the basis of the work of Max Weber (1864-1920), the German economist and sociologist, the ideal types who use and who do not use Basque in the street are dealt with in this paper, in order to get a better idea of the factors that encourage or hamper use. Bearing in mind the differences in terms of the speakers' sex, age, place of residence and the density of bilinguals around them, the factors influencing a person to speak Basque in the street or not are described. • **Key words:** *ideal types, street use, sex, age, place of residence, density of bilinguals.*

Max Weber soziologoak adierazi bezala, “tipo idealak” gizarte-ikertzaielen eraikuntzak dira, fenomeno sozialen izaera hobeto ezagutzen laguntzen dutenak.

Artikulu honetan, muturretan kokatzen diren bi tipo ideal sortzea dut helburu: kalean euskara erabiltzen dutenena eta erabiltzen ez dutenena. Bi tipologion muinean edo esentzian dagoena, garrantzizkoena edo tipikoena dena ezagutuz, uste dut, argiago ikusten direla erabilera bultzatzen edo oztopatzen duten faktoreak.

1989. urtetik egindako azterketek erakusten dute, euskararen kale erabilera azken hamar urteetan ez dela ez igo ez jaitsi, “trabatuta” dagoela. 2011ko neurketen arabera, euskararen erabilera %13,3koa izan zen, eta 22 urtean, batez beste, 2,5 puntu egin du gora.

Hala ere, hiztunen sexuaren, adinaren, bizitokiaren eta inguruko elebidun-dentsitatearen araberrako desberdintasunak agerikoak dira. Desberdintasun hauetan oinarrituz eraikiko ditut aipatutako bi tipo idealak.

## **1. HAURRAK VERSUS ADINEKOAK**

### **I**

1989tik 2011ra egin dituen neurketek erakutsi bezala, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara kaleko harremanetan. Hain zuzen ere, euskaraz aritzen dira kalean Euskal Herriko haurren %19,2, gazteen %13,4, helduen %11,8 eta adinekoen %9,7. Umeen eta adinekoen artean ia 10 puntuko aldea dago.

---

**1989tik 2011ra egin dituen neurketek erakutsi bezala, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara kaleko harremanetan.**

**1. Taula: kale-erabilera, adin-taldeen arabera. 1989-2011**

Lurraldea	Neurketa urtea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskal Herria	1989	15,1%	8,5%	9,2%	13,7%
	1993	16,1%	10,0%	9,9%	12,9%
	1997	17,5%	11,8%	11,0%	13,3%
	2001	18,5%	13,6%	11,1%	12,6%
	2006	19,7%	13,4%	12,0%	10,6%
	2011	19,2%	13,4%	11,8%	9,7%
Araba	1989	5,7%	3,3%	3,4%	4,8%
	1993	5,4%	4,7%	3,5%	5,2%
	1997	5,5%	3,7%	3,8%	2,0%
	2001	6,8%	3,9%	3,9%	1,5%
	2006	6,8%	6,6%	4,6%	0,8%
	2011	6,5%	5,7%	3,5%	1,2%
Gipuzkoa	1989	34,1%	16,6%	19,2%	27,0%
	1993	34,5%	19,7%	19,6%	26,7%
	1997	39,4%	25,4%	22,4%	26,4%
	2001	42,3%	31,2%	23,9%	26,4%
	2006	48,6%	34,2%	27,3%	21,7%
	2011	48,9%	36,9%	28,8%	22,4%
Nafarroa	1989	9,8%	5,3%	5,3%	5,8%
	1993	10,6%	7,1%	5,8%	6,5%
	1997	8,8%	6,4%	6,0%	6,1%
	2001	7,6%	6,4%	5,1%	5,2%
	2006	7,8%	6,2%	5,2%	5,3%
	2011	7,5%	5,6%	5,4%	3,3%
Bizkaia	1989	9,1%	6,6%	6,8%	12,8%
	1993	13,0%	8,1%	8,0%	11,3%
	1997	14,4%	9,2%	8,9%	11,3%
	2001	16,0%	10,2%	8,9%	10,6%
	2006	15,8%	8,3%	9,3%	9,3%
	2011	13,7%	8,6%	8,0%	8,3%
Ipar Eha	1993	5,1%	3,2%	6,2%	11,3%
	1997	6,2%	4,4%	7,9%	15,0%
	2001	6,9%	3,8%	6,6%	12,8%
	2006	6,8%	4,0%	5,7%	9,2%
	2011	9,6%	6,7%	5,5%	4,8%

Euskal Herriko umeek beste adin tartetakoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kalean. Zergatik gertatzen da hau? Nire ustez, umeek euren egunerokotasunean gazte, heldu eta adinekoek baino harreran estuagoa dutelako euskararekin.

Transmisioari<sup>1</sup> eta, bereziki, eskolari esker<sup>2</sup>, euskaldun kopuru handiena umeen artean aurkitzen dugu<sup>3</sup>, eta horrek, nahitaez, erabileran

eragiten du. Zenbat eta ume elebidun gehiago egon, handiagoa da hauen artean euskaraz arituko direnak aurkitzeko probabilitatea.

Gurasoen euskararekiko jarrerak ere eragina dute umeen euskararen kale-erabileran.

V. Inkesta Soziolinguistikoak erakusten digunez, Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoa (%55,2) euskararen erabilera sustatzearen alde dago<sup>4</sup> (Eusko Jaurlaritz, 2012), eta horrek eragiten du, nire ustez, euren artean erdaraz hitz egiten duten guraso euskaldunek ere euren seme-alabei euskaraz hitz egiteko agintzea.

Hirugarrenik, kontuan hartu behar da umeen artean euskararen erabilera sustatu duten aisialdiko eta eskolaz kanpoko hainbat egitasmo arrakastatsu jarri direla martxan azken urteotan: alde batetik, Euskal Herriko 20.000 bat ikasle dabiltzala bertso eskoletan edo “Bertsolaritza Irakaskuntzan” egitasmoan (Susaeta, 2012-01-18). Bertsogintzaren teknikak irakasteaz haratago, era honetako ekimenek euskararen erabilera akuilatu dute, hizkuntzaren alderdi jostagarria erakutsi die ume eta gazteei, eta ahozkotasanaren garrantziaz ohartarazi. Bestetik, haur eta gazteen artean, euskarazko literatura bultzatzeko pauso erabakigarriak eman dira. 1990ean sortu zen Galtzagorri Elkarteak, adibidez, lan asko egin du gazteenen artean euskarazko irakurzaletasuna bultzatzen.

Azken urteotan, bestalde, umeen artean euskararen erabilera sustatzeko hainbat motibazio saio, elkarretaratze, udaleku, eskolaz kanpoko ekintza, jai eta ekimen burutu dira Euskal Herrian<sup>5</sup>. Modu berean, umeez nagusiagoek baino euskarazko produktu eta zerbitzu kulturalen aukera zabalagoa dute, bereziki aisialdiari begira: antzerkiak, disko festak, pailasoak, liburuak, filmak...<sup>6</sup>.

Arazoi hauen guztien eraginez, umeez harreman estuagoa dute euskararekin, eta, ondorioz, beste adin tarte batzuetakoak baino euskaldunagoak dira kalean.

Nafarroa Oinez 12ko jarduera programazioaren barrenean, Paula Kasares-ek euskararen jarraipenerako eskolak eta etxeak dituzten loturei buruzko hitzaldia eman zuen San Fermin Ikastolan (Zizur Txikia) 2012ko urriaren 5ean. Bertan esan zuen XX. mendearen hasieran Israelen ebraierarekin jazo bezala, umeak direla euskal gizartea euskalduntzen ari direnak. Nik ere gauza bera pentsatzen dut.

Hala ere, ezin gara engainatu. Umeez 2006an baino gutxiago hitz egiten dute euskaraz kalean. Umeen euskararen kale-erabilerak bakarrik Gipuzkoan eta Iparraldean egin du gora. Gipuzkoan hori gertatzea ulergarria da, euskarak beste inon baino baldintza hobekoak dituelako. Beste herrialdeetan baino ume euskaldun gehiago dituzte, euskararekiko

---

**Gurasoen  
euskararekiko  
jarrerak ere  
eragina dute  
umeen  
euskararen kale-  
erabileran.**

---

**Haurrak  
erabileraren  
mutur batean  
daude, eta  
adinekoak  
bestean.**

jarrera hobegoak, euskarazko irakaskuntza ereduan (D ereduan) beste lekuetan baino ume gehiago matrikulatzen da eta, azkenik, iruditzen zait (hipotesi bat da hau) erakunde publikoetatik zein herri ekimenetik euskararen aldeko ekimen gehiago antolatzen direla.

Gehiago harritzen nau Iparraldeko igoerak. Euskararen aldeko jarrerak, irakaskuntza elebiduna, euskara sustatzeko ekimenak eta eza-gutza Euskal Herriko beste zonalde batzuetan baino ahulagoak dira, baina, hala eta guztiz ere, haurren kale-erabilerak gora egin du 2006tik. V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak ere ildo beretik doaz: gaur eguneko Iparraldeko gazte elebidunek duela hamar urtekoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz.

Denborak esango du Iparraldeko umeen artean agertu den joera hau anekdota hutsa den, edo sustrai sendoko arbola. Edonola ere, 2012ko azaroaren 16an “Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian” izenburupean Euskaltzaindiak Baionan antolatu zituen XVII. Jagon Jardu-naldietan ikusi ahal izan genuen, euskararen munduan zerbait mugitzen ari dela Iparraldean, eta, agian, haurren artean jazo den erabileraren igoera hau kasualitate hutsa baino zerbait gehiago dela.

Haurrak erabileraren mutur batean daude, eta adinekoak bestean.

Adinekoen artean nabaritzen den erdararako joera azaltzeko lehen arrazoia da, hauen artean beste adin taldeetan baino euskaldun gutxiago dagoela. Are gehiago, 1991tik, euskaraz zekiten 65 urtetik gorakoek kopurua jaisten joan da<sup>7</sup>.

Bestetik, aipagarria da adinekoek beste adin taldeek baino gehiago pairatu zutela frankismoak euskararen aurkako antolatu zuen jazarpena. Ondorioz, euskaraz hitz egiteko, ikasteko edota alfabetatzeko aukera gutxiago izan dituzte.

Hirugarren arrazoia da, adin tarte honetan asko direla 60. eta 70. hamarkadan Espainiatik Hego Euskal Herrira lan egitera etorritakoak, eta hauek euskararen ezagutza txikia dutela.

Azken arrazoia da, adinekoen artean ez dela euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko inolako ekimenik bultzatzen; are gutxiago, aisialdiari begira. Nagusiei unibertsitate ikasketak eskaintzen zaizkie, eskulan edo informatika ikastaroak, bidaiak... baina, nik dakidala, ez dago hauen artean euskara sustatzeko inolako egitasmorik. Euskaren munduak ere ahantziak ditugu adinekoak.

## 2. EMAKUMEAK VERSUS GIZONAK

I

Emakumeek gizonezkoek baino euskara gehiago erabiltzen dute kalean. Desberdintasunak ez dira oso handiak, baina denboran mantentzen dira, eta adin talde guztietan gertatzen da, adinekoetan izan ezik.

**2. taula: kale-erabilera Euskal Herrian, sexuaren arabera. 2001-2011**

Neurketa urtea	EMAKUMEZKOAK				GIZONEZKOAK			
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	21,3%	14,7%	11,1%	11,7%	20,0%	11,4%	11,0%	13,0%
2006	20,2%	14,4%	12,0%	10,1%	19,2%	12,0%	11,8%	11,1%
2011	19,9%	13,9%	12,0%	9,1%	18,6%	12,8%	11,4%	10,4%

**Emakumeek  
gizonezkoek  
baino gehiago  
hitz egiten dute  
euskaraz kalean,  
egunerokotasune  
an euskararekiko  
harreman  
estuagoa  
dutelako.**

Emakumeek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kalean, egunerokotasunean euskararekiko harreman estuagoa dutelako. Kike Amonarrizek 1995ean zioen euskararen erabilera ‘feminizazio’ prozesu batean sartuta zegoela (Amonarriz, 1995:89-96), eta kale-erabilerari buruzko neurketek baieztapen hori sendotu besterik ez dute egiten.

Erabileraren feminizazioaren lehen arrazoia da emakumeek gizonezkoek baino hobeto ulertzen, hitz egiten, idazten eta irakurtzen dutela euskaraz. Alegia, emakumeak konpetenteagoak dira euskaraz. Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egin zuen ikerketan ikus genezakeen bezala (2011ko urtarrila), EAEko emakumeen %30rak euskaraz ondo ulertzen duela zioen (gizonezkoen %28k adierazten zuen hori), %27k ondo hitz egiten duela (gizonezkoen %26k), %28k ondo irakurtzen (gizonezkoen artean %26k) eta %25k ondo idazten (gizonezkoen %22k).

Egia esan, ulergarria da hori gertatzea, kontuan hartzen badugu emakumeak gizonezkoak baino gehiago joaten direla euskaltegietara. 2010/2011 ikasturtean, adibidez, 39.398 ikasle aritu ziren euskalduntzen eta alfabetatzen EAE-ko euskaltegietan, eta ikasleen %67,4 emakumeak izan ziren (www.eustat.es). Gainera, Eusko Jaurlaritzako kabineteak egin zuen ikerketaren ustez (2011ko urtarrila), EAEko emakumeen %41ak noizbait euskarazko klaseak hartu ditu eskolatik kanpora, eta gizonezkoen %38k izan du horrelako esperientzia bat. Bestalde, emakumezkoen artean %10 dira sei hilabete baino gehiagoko ikastaroak egin dituztenak, eta gizonezkoen artean %8.

Erabileraren feminizazioa azaltzen duen beste arrazoi bat da, emakumezkoek bete ohi dituzten lanbideetan (irakasle, zaintzaile, administraria...) euskararen eskaera eta erabilera handiagoa dela. Beraz, gi-

zonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara lanean, eta, ondorioz, baita kalean ere<sup>8</sup>.

Arestian esan bezala, umeak dira Euskal Herria euskalduntzen ari direnak. Beraz, emakumeek gizezkoek baino denbora gehiago egiten dutenez umeekin<sup>9</sup>, ulertzekoa da gizezkoek baino harreman estuago izatea euskararekin.

Adin tarte guztietan emakumeek gizezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kalean, nagusien artean izan ezik. Hain zuzen ere, emakume nagusien %9,1 aritzen da euskaraz eta adin horretako gizezkoen %10,4.

Nire ustez, euskararen aurka frankismoak bultzatu zuen jazarpenak gizezkoengan baino eragin sakonagoa izan zuen 60. eta 70. hamarkadako emakume gazteengan. Kike Amonarrizek zioen bezala, gaur egun 50 urte edo gehiago dituzten emakume euskaldunek “gizarteratze’ ereduak imitatzerakoan erdara hartu eta euskara utzi egin ohi zuten, eta mutilek ordea, euskararekiko atxikimendu handiagoa izan ohi zuten; euskara beraiantzat nortasun-hizkuntza baitzen” (Amonarriz, 1995:91). Alegia, euskaldun izatearen estigma edota lotsa gehiago hedatu zen emakume gazteen artean, eta, horrek eragiten du egun gizezkoek baino euskara gutxiago erabiltzea.

### **3. GIPUZKOA VERSUS NAFARROA**

**I**

Herrialdeen araberrako azterketa egiten badugu, Gipuzkoa da euskara gehien erabiltzen den herrialdea. Beste muturrean Nafarroa dago. Hain zuzen ere, gipuzkoarren %32,7k euskara erabiltzen du kalean eta nafarren %5,7k.

**3. taula: kale-erabilera, lurralde-eremuaren arabera. 1989-2011**

Lurraldea	Neurketa urtea	Euskara	Gaztelania/Frantsesa	Beste hizkuntzak
Araba	1989	3,9%	96,1%	
	1993	4,2%	95,8%	
	1997	4,0%	96,0%	
	2001	4,2%	95,8%	
	2006	4,7%	92,8%	2,5%
	2011	4,0%	91,6%	4,4%
Gipuzkoa	1989	23,3%	76,7%	
	1993	23,9%	76,1%	
	1997	27,6%	72,4%	
	2001	29,5%	70,5%	
	2006	32,1%	66,3%	1,7%
	2011	32,7%	65,3%	2,0%
Nafarroa	1989	6,5%	93,5%	
	1993	7,5%	92,5%	
	1997	6,8%	93,2%	
	2001	6,0%	94,0%	
	2006	6,0%	91,8%	2,2%
	2011	5,7%	91,6%	2,7%
Bizkaia	1989	8,1%	91,9%	
	1993	9,6%	90,4%	
	1997	10,5%	89,5%	
	2001	10,7%	89,3%	
	2006	10,7%	87,6%	1,7%
	2011	9,4%	87,4%	3,2%
Ipar Eha	1993	6,5%	93,5%	
	1997	8,3%	91,7%	
	2001	7,6%	92,4%	
	2006	6,0%	84,2%	9,8%
	2011	6,2%	82,8%	11,0%

Zergatik da euskararen kale-erabilera altuagoa Gipuzkoan?

Alde batetik, arrazoi historikoak daude. 1866-1868 urteen bueltan, euskaldunak ziren arabarren %9,59, nafarren %19,97, Iparraldeko biztanleriaren %65,04, bizkaitarren %81,43 eta gipuzkoarren %96,42 (Intxausti, 1992:134). Alegia, XIX. mendetik gaur egunera, euskara beste inon baino indartsuago egon da Gipuzkoan. V. Inkesta Soziolinguistikoak erakusten duen legez (Eusko Jaurlaritza, 2012), 16 urte eta gehiagoko gipuzkoarren %49,9 da euskalduna, bizkaitarren %25,4, Iparral-



**Gipuzkoaren  
beste muturrean  
Nafarroa dago.  
Hain zuzen ere,  
Euskal Herriko  
zazpi  
herrialdeetatik  
Nafarroa da  
erdaldunena.  
Erraz ulertzen  
dira zergatiak.**

deko biztanleriaren %21,4, arabarren %16,8 eta nafarren %11,7. Gipuzkoan beste inon baino elebidun gehiago dauden heinean, ulergarria da euskara gehiago erabiltzea kalean.

Gipuzkoako erabilera azaltzen duen beste aldagai bat irakaskuntza da. Kontuan izan behar da D ereduak beste inon baino indar gehiago duela. 2012-2013ko ikasturtean, adibidez, Gipuzkoako unibertsitatez kanpoko ikasleen %78,1ak D ereduan ikasten du, Bizkaiko ikasleen %57,8k eta Arabakoek %44,4k (www.eustat.es). Nafarroan eta Iparraldean askoz gutxiago dira euskara hutsezko eredu hautatzen dutenak.

Jarrera da kale-erabilera beste herrialdeetan baino indartsuagoa dela azaltzen duen beste faktore bat. IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, gipuzkoarren %76,3 euskararen erabilera sustatzearen alde edo oso alde agertzen da. Bizkaitarren %62,5ek pentsatzen du hori, Araban %47,2k, Nafarroan %37,7k eta Iparraldean %41,2k (Eusko Jaurlaritzak, 2008)<sup>10</sup>.

Azkenik, iruditzen zait (hipotesi bat da) beste inon baino euskararen normalizazioaren aldeko egitasmo gehiago egiten direla Gipuzkoan. Foru eta udal administrazioek zein herri ekimenek beste herrialdeetan baino pauso gehiago eman dituzte euskararen alde. Besteak beste, aipagarriak dira Kirola Euskaraz programa, kirol munduan euskara sustatzea helburu duena, Udal<>ekin programa, euskararen sustapen edo normalkuntza lanetan ari diren udal teknikariei laguntza emateko, eta hainbat udaletan euskararen alde bultzatu diren transmisio eta motibazio kanpainak, festak, udalekuak...

Gipuzkoaren beste muturrean Nafarroa dago. Hain zuzen ere, Euskal Herriko zazpi herrialdeetatik Nafarroa da erdaldunena. Erraz ulertzen dira zergatiak.

Alde batetik, kontuan hartu behar da beste herrialdeetan baino euskaldun gutxiago bizi dela Nafarroan. XIX. mendearen erdi aldean biztanleriaren %19,97 zen euskalduna eta momentu honetan %11,7 (Intxausti, 1992: 134 eta Eusko Jaurlaritzak, 2012).

Bestetik, aipatzekoa da euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak beste herrialdeetan baino ezkorragoak direla. Nafarren %34,1ak euskararen erabilera sustatzeari buruzko aurkako edo oso aurkako jarrerak ditu, EAE-ko biztanleen artean jarrera hori agertzen du %11,6k, eta Iparraldeko biztanleen artean %21,3k (Eusko Jaurlaritzak, 2012).

Irakaskuntzaren ikuspuntutik ere D eredu oso ahul dago. Are gehiago, 2012ko matrikulazio datuek diote jaitsi egin direla Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskaraz ikasten dutenen matrikulak. Jaitsierra horren arrazoi bat izan daiteke jaiotza tasak behera egin izana. Krisi ekonomikoak ere bere parte izango du, umeak ordaindu

behar diren ikastoletara ez eramateko. TIL eredia (ingelesezko ereduak) ere konpetentzia gogorra da euskarazko ereduarentzat. Dena dela, arrazoirik garrantzitsuenak da, nire ustez, Nafarroako gobernuak gutxi egiten duela euskarazko irakaskuntzaren alde. Nestor Salaberriak, Nafarroako Sortzen Ikasbatuaz elkarteko zuzendariak, dioen legez: “(...) eskolaren bitartez Nafarroan egiten den euskalduntzea geldirik dago. Eta hori gertatzen da, Nafarroako Gobernuak euskara aintzat hartzen ez duelako eta bultzatzen ez duelako”. Orain arte, haur kopuruaren herenak ematen zuen izena eskola publikoetako euskarazko irakaskuntzan; orain, ia laurdenak (Eskudero eta Elizondo, 2012).

Kaleko erabilerari dagokionez, Gipuzkoa da euskaldunena eta Nafarroa erdaldunena. Gauzak horrela, ulergarria da Donostian izatea Hego Euskal Herriko hiribururik euskaldunena eta Iruñea erdaldunena. Neurketek diote donostiarren %15,9k euskaraz hitz egiten duela kalean eta iruindarren %2,5ak.

**Zenbat eta elebidun gehiago izan inguruan, are eta handiagoa da euskararen erabilera, eta alderantziz.**

#### 4. taula: kale-erabilera Hego Euskal Herriko hiriburuetan. 2011

	Euskara	Gaztelania/Frantsesa	Beste hizkuntzak
Gasteiz	3,1%	92,2%	4,7%
Donostia	15,9%	81,1%	3,0%
Iruñea	2,7%	94,3%	2,9%
Bilbo	3,2%	91,8%	5,0%

## 4. GUNE EUSKALDUNAK VERSUS GUNE ERDALDUNAK

Euskal Herrian orain arte egin diren ikerketek erakutsi bezala, euskara erabili ahal izateko faktorerik garrantzitsuenetarikoa sarean dagoen elebidun-dentsitatea da. Udalerriaren euskararen ezagutza mailaren araberako desberdintasunak aztertzen baditugu, argi ikusten dugu elebidun-dentsitateak eragin zuzena duela euskararen kale-erabileran. Zenbat eta elebidun gehiago izan inguruan, are eta handiagoa da euskararen erabilera, eta alderantziz. Ondorengo taulan ikusten den bezala, euskararen ezagutza %0-25 tartean dagoen udalerrietan biztanleriaren %3k erabiltzen du euskara kalean; aldiz, euskararen ezagutza %75-100 tartean dagoen udalerrietan euskararen kale erabilera %66,5ekoa da.

**5. taula: kale-erabilera, zonalde linguistikoaren arabera. 1993-2011**

Zonalde Soziolinguistikoa	Neurketa urtea	Erabilera euskaraz
%0-25 bitarte	1993	2,9%
	1997	2,9%
	2001	3,2%
	2006	4,1%
	2011	3,0%
%25-50 bitarte	1993	10,7%
	1997	13,4%
	2001	17,0%
	2006	15,9%
	2011	14,4%
%50-75 bitarte	1993	31,8%
	1997	37,5%
	2001	37,2%
	2006	36,8%
	2011	39,7%
%75-100 bitarte	1993	63,6%
	1997	62,3%
	2001	61,8%
	2006	66,5%
	2011	66,5%

## 5. TIPO IDEALEN ARABERAKO ONDORIOAK

Egindako azterketak bi tipo ideal agertzen dizkigu:

1. tipo ideala: kalean euskara erabiltzen duena emakumea, gipuzkoarra, euskararen ezagutza %75-100 tartean dagoen udalerrri batean bizi dena eta haurra da.
2. tipo ideala: euskara kalean erabiltzen ez duena gizona, euskararen ezagutza %0-25 tartean dagoen udalerrri batean bizi dena, nafarra eta adinekoa da.

Tipologia hauekin ez dut esan nahi lehen tipoan sartzen diren guztiek kalean euskaraz hitz egingo dutenik edo bigarreneko inork ez duenik euskaraz hitz egingo. Zentzu weberianoan egindako tipologiak diren heinean, ez dira errealitatean existitzen. Badaude oso gune euskaldunetan kalean erdaraz hitz egiten duten neskatila gipuzkoarrak edo euskaraz aritzen diren gune erdaldunetako adineko gizon nafarrak.

Hala ere, tipo ideal hauen erabilgarritasuna da euskararen kale-erabileraren berezitasun garrantzitsuenak ezagutzeko bidea ematen digutela; alegia, pertsona batek kalean euskaraz egiteko edo ez egiteko dauden arrazoiak azaltzen. Horrela, bada, euskararen kale-erabileran faktore hauek eragiten dutela esan genezake:

— Inguruko elebidun-dentsitateak: zenbat eta euskaldun gehiago izan inguruan, are eta euskara gehiago hitz egiten da. Elebidunen kopuruan, abiapuntu historikoak zein transmisioak eta euskarazko irakaskuntza ereduak duen indarrak eragiten dute.

— Harreman sarea: zenbat eta euskaldun gehiago izan inguru hurbilean (bereziki umeak), are eta gehiago hitz egiten da euskaraz kalean.

— Hitzunen trebetasuna: zenbat eta euskaraz hobeto ulertu, hitz egin, idatzi eta irakurri, are eta gehiago hitz egiten da euskaraz kalean.

— Euskararekiko jarrera: euskara sustatzearen zenbat aldekoago agertu, are eta erabilerari handiagoa da.

— Erakundeen hizkuntza politika: euskararen normalizazioaren alde zenbat eta ekimen gehiago jarri martxan are eta gehiago hitz egingo da euskaraz kalean.

— Euskararen erabileraren aldeko ekimenak: erakundeek zein herri ekimenak zenbat eta motibazio saio, ekitaldi, elkarretaratze edo jai gehiago burutu inguruan, euskara gehiago erabiltzen da kalean.

— Aisialdian euskaraz aritzeko aukera: zenbat eta aisialdiko, eskolaz kanpoko edota kulturari loturiko ekimen gehiago izan euskaraz, are eta euskara gehiago erabiliko da kalean.

Hasieran esan bezala, euskararen erabilerari buruzko datuak ez dira aldatu azken hamar urteotan. Nire ustez, erabilerak gora egitea nahi badugu, ezinbestekoa da aipatutako faktoreen inguruan lan egitea. ●

## BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, K. (1995): "Euskararen erabilpenaren feminizazioa". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, Andoain, 89-96.
- Barandiaran, A. (2008-6-19): "Ezin da kultur industria garatu kulturatik bakarrik". *Berria Egunkaria* (www.berria.info).
- Eskudero, J. eta Elizondo, E. (2012-2-15): "D ereduan hasiko dira ikasle berrien %77, iaz baino %1, 6 gehiago". *Berria Egunkaria* (www.Berria.info).

---

***Tipo ideal hauen erabilgarritasuna da euskararen kale-erabileraren berezitasun garrantzitsuenak ezagutzeko bidea ematen digutela; alegia, pertsona batek kalean euskaraz egiteko edo ez egiteko dauden arrazoiak azaltzen.***

- Eusko Jaurlaritza (2009): *IV. Mapa Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2012): *V. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza-gaitasuna. Transmisioa. Jarrera. Erabilera*. [http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17894/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/encuestas\\_sociolinguisticas.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17894/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/encuestas_sociolinguisticas.html)
- Eusko Jaurlaritza, Eustat: Euskaltegiak eta heldu euskaldunduak eta alfabetatuak, euskaltegi-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2010-2011 [www.eustat.es](http://www.eustat.es).
- Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2011ko urtaririla): *Euskera: uso, actitudes, políticas*. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, [www.euskadi.net/estudios\\_sociologicos](http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos)
- Intxausti, J. (1992): *Euskera. La lengua de los vascos*. Elkar, Donostia.
- Susaeta, I. (12-1-18): “Erroak sendo, burua zabal”. *Berria Egunkaria* ([www.Berria.info](http://www.Berria.info)).

## WEBGRAFIA

- Berria Egunkaria: <http://www.berria.info/>
- Euskararen Aurrerabiderako Webgunea: <http://www.erabili.com>
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila: <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net>
- Eustat: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: [www.euskadi.net/estudios\\_sociologicos](http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos)

## OHARRAK

1. V. Inkesta Soziolinguistikoak aurreratu dituen datuen arabera (Eusko Jaurlaritza, 2012), guraso biak elebidunak direnean, euskararen transmisioa ia erabatekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan (hemendik aurrera EAE) eta Nafarroan (%97 EAEn eta %95 Nafarroan), baina ez Iparraldean (%87). Bikote mistoen kasuan transmisioak gora egin arren, ez da erabatekoa (%71 EAEn, %67 Nafarroan eta %56 Iparraldean).
2. 2012ko matrikulazioetan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 2. urteko ikasle berrien gurasoen %76,83k euskarazko irakastereduaren alde egin du (Eskudero eta Elizondo, 2012)
3. V. Inkesta Soziolinguistikoak dioenez, elebidunen hazkundera gazteenen artean gertatzen ari da. EAEn eta Nafarroan, bereziki, 16 urtetik beherakoekin artean dago elebidunen ehuneko handiena.
4. Ezin da ahantzi, hala ere, herrialdeen artean desberdintasun nabarmenak daudela. V. Inkesta Soziolinguistikoak dioen legez, EAE-ko biztanleen %62,3 agertzen da euskararen erabilera sustatzearen alde, Nafarroan %37,7 eta Iparraldean %38,5.
5. Gipuzkoako hainbat herritan burutu dira “Ikasle gazteentzako motibazio saioak”. Aitziber Arnaiz-ek, Oiartzungo Udalaren Euskara teknikariak, Oiartzun, Pasaia, Lezo eta Lasarteko esperientziei buruz zioenez (<http://www.erabili.com>): 1999. urtetik “ikaste-teeekin eta euskara elkarteekin elkarlanean antolatzen diren ikasle gazteentzako motibazio saioek euskararen aldeko kontzientzia piztea dute helburu; euskararen egoera aztertuz,

gazteengan hizkuntzarekiko kontzientzia piztea. Gazteak euskararen normalkuntza bidean eragile aktibo bihurtzea bilatzen da”.

6. Honen guztiaren ondorioz, haurrentzako euskarazko kultura produktuen merkatua dinamikoagoa eta errentagarriagoa da. Adibide bat jartzearen, euskal liburu gehienen tiradak 1.500ekoak izaten dira, eta umeen literaturaren kasuan, 2.000koak (Barandiaran, 2008-6-19).

7. V. Inkesta soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2012), 1991n, elebidunak ziren Euskal Herriko 65 urte edo gehiagokoek arteko %28,6. 2011. urtean, elebidunak dira %21,4.

8. Prospekzio Soziologikoen Kabitearen arabera, EAE-ko emakumeen %17ak euskara erabiltzen du lanean edo ikasketa lekuan, gizonezkoen artean euskara erabiltzen dutenak %11 direlarik (Prospekzio Soziologikoen Kabineteak, 2011).

9. EUSTAT-ek 2008an egin zuen Denbora-aurrekontuen Inkestaren arabera, emakumeek egunean 36 minutu pasatzen dituzte etxeko pertsonak zaintzen eta gizonezkoek 19 (www.eustat.es).

10. V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2012), EAE-ko biztanleriaren %62,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, jarrera hori nafarren %37,7k dauka, eta Iparraldeko biztanleen %38,5ak.